

b) Ezagutza pedagogikoa

1. maila: Oinarrizkoa

Ikasle gisa izandako esperientzietan edo bere intuizioan oinarritutako ezagutza pedagogikoa du. Ez du interesik pedagogian eta ez zaio iruditzen irakaskuntza-jardunerako garrantzitsua denik.

Ez ditu ezagutzen ikasleei helburuak betetzen eta curriculumeko konpetentziak, zeharkako konpetentziak eta prestakuntza-ebaluazioko estrategiak garatzen laguntzen dieten baliabide metodologiko eraginkorrak

Ez da ohartzen zeinen garrantzitsua den ikasgelako giroa kudeatzea ikaskuntzarako ingurune aproposa sortzeko.

2. maila: Garatze bidean

Proposatzen duen planteamendu pedagogikoa bat dator indarreko araudian egiten den irakaskuntza-ikaskuntza prozeduraren planteamenduarekin eta ikasgelaren kudeaketarekin.

Konpetentziak garatzeko eta aniztasunari erantzuteko metodologia eta baliabide didaktiko eraginkorrak ezagutzen ditu, besteak beste: garapen gertuko eremuko detekzioa, lankidetzaren arazo-egoeren planteamendua eta ebaluazio prestatzailea eta batutzailea egiteko zenbait iturri.

Ikasgelako giroa kudeatzeko estrategiak ezagutzen ditu.

3. maila: Garatua

Sakonki ezagutzen ditu ikasleen ikaskuntza-helburuak betetzeko estrategia pedagogiko berritzaile eta eraginkorrak.

Sakonki ezagutzen ditu helburuak betetzen eta konpetentzia akademikoak eta zeharkako konpetentziak garatzen laguntzen duten metodologia eta jarduketak didaktiko ugari, eta gai da horiek guztiak berrikusi eta eguneratzeko, eguneroko jardunean bizi duenarekin erkatuta.

Ikasgela eta bizikidetzaren positiboa kudeatzeko estrategia berritzaileen gaineko ezagutza du.

4. maila: Aurreratua

Etengabe eguneratzen du bere prestakuntza pedagogikoa.

Erreferentetzat dute ikastetxean eta ikastetxetik kanpo, ematen duen ikasgaiaren/arloaren gaineko alderdi pedagogiko, metodologiko eta didaktikoak ezagutzen dituelako.

Aitortu eta eskatu egiten zaizkio ikasgela kudeatzeko eta bizikidetzaren positiborako jardunbide egokiak.